

## 2. MAHASGINTZA BOLETINA / 2022-KO MAIATZA. IZURRITE ETA GAIXOTASUNAK

- **Internet bidezko asteroko oharrak :**  
[http://www.bizkaia.eus/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem\\_Codigo=5505&Idioma=EU](http://www.bizkaia.eus/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=5505&Idioma=EU)
- **Erantzungailu automatikoaren bidezko asteroko oharrak (Maiatzaren lehen astetik aurrera): 944066879**
- **Mahasgintza eta enologia boletina**
- **SMS mezuak egoera berezietarako (gorrinaren lehen orbanaren topaketa, txingorra...)**

Kanpaina honetan, aurrekoetan bezala, hainbat berrikuntza daude Produktu Fitosanitarioen Erregistroan, batez ere ezeztapenetan, eta, beraz, ezin dira erabili adierazitako datetatik aurrera. Aurreko boletin fitosanitarioan, aldaketa garrantzitsu batzuen barri eman genizuen, eta orain barriro egiten dogu, horietako batzuk oso ohikoak baitira mahastizaintzan, eta beste alde batetik, une hartan, emoneko balizko erabilera-epe batzuk, ondoren MAPA<sup>k</sup> aldatu egin dauz.

**Mancozeb** eta bere formulazioak erregistrotik erori dira eta adibidez **Micene Plus**, **Cikeman** edo **Fantic M** ezin dira erabili 2022/01/04tik.

**Dimetomorf** formulazioak ere bertan behera geratu dira, hala nola **Forum Gold**, **Forum Top** edo **Enervin Duo SC** bertan behera geratu ziren 2021/12/21ean (eta ezin dira data horretatik erabili), **Enervin Duo** 2021/12/3an bertan behera geratu zen (eta ezin da erabili data horretatik aurrera), **Electis D** bertan behera geratu zen 2021/12/16an (eta ezin da erabili data horretatik aurrera) eta beste batzuk.

**Heliosol** bertan behera geratu da 2021/11/11n eta erabilera muga 2022/05/11n amaitu da.

Holan dala, funtsezkoa da gertatzen diren barrikuntzen barri izatea. Horretarako, Elkartearen zerbitzu teknikoei edo Aldundiari kontsulta egin dakieke, edo MAPAren web-orria kontsultatu:

<https://servicio.mapa.gob.es/regfiweb>

Bestalde, jakinarazten dotsuegu **Bizkaiko Foru Aldundiaren Landare-Babeserako Zentroaren kokapena aldatu egin dala**, eta orain helbide honetan dagoela (aurrekotik oso hurbil):

Parke teknologikoa. Ibaizabal bidea. 502 eraikina. Solairua 0, 48160 Derio.

Telefonoa mantentzen da: 944541009

Oraingo egoera fenologikoetan kontutan hartu beharko dira honako patogeno hauek:

**GORRINA:** maiatzak 12an **mahats gorrinaren lehenengo olio-motak** ikusi dira Bilbon ta aurretik Okendon(Araba). Olio mota hauek esporulazioa agirian eukien. Holan dala, maiatzak 16an gauzela, ta dogun eguraldia be kontutan izanik, euria izan da larunbatean ta temperatura epelak une honetan arriskua oso handia dogu.

Kontrola: **garai honetan eta lora aletu arte** gaixoaren bilakaerarako kondizio aproposak espero badira komeni da landaketak produktu sistemikokaz babestuta eukitea kimuak oso azkar hasten direlako. Erabili 2022ko Tratamendu Gidako **M1 taldeko fungizida sistemikoak**. Produktu hauek eraginkortasun handia dute, baina onddoak erresistentziak sortzeko erraztasun handia du, eta horregatik famili kimiko desbardineta gai eragingarriak txandakatu egin behar dira.

Produktu sistemiko hauek 2-4 egunetan onddoa gelditzeko edo “stop” izateko gaitasuna dute behin infekzioa gauzatu dala. Produktu hauek prebentiboki erabiltzen badira beraien eraginkortasuna altuagoa izan daiteke. Euren persistentzia 12 egun ingurukoa da baina gaixotasunaren presioa oso altua eta landarearen hazkundera oso handia bada tratamenduen arteko tarte 2 egunetan murriztu beharko da, hau da 10 egun.

Landarearen organuak ondo busti beharko dira makineria egokia eta ondo kalibratua erabiliz.

**BOTRITISA:** **loraketa-aletze inguruan**, (I-J egoera fenologikoak) –normalean ekaineko lehenengo hamobostaldian-, eta bereziki euriak edota humedade altuko kondizioak espero badira, mordoak babestu beharko dira. Erabili 2022ko Tratamendu Gidako **B taldeko botritisaren kontrako fungizidak**.

**OIDIOA:** bariedade sentikorretan edota beste urte batzuetan kalteak handiak izan badira, apirileko mahats boletinean F egoera fenologikoan lehenengo tratamendua emotea gomendatu deusuegu. Hasiere batean, hurrengo tratamendua **loraketa sasoi**an gomendatuko dogu, horretarako 2022ko Tratamendu Gidako **O taldeko oidioaren kontrako fungizidak erabiliz**.

**MORDOAREN SITSA:** gure mahastietan ez dago arazo handirik insekto honegaz orokorrean ta sasoi honetan askoz be gitxiago ondino ez dogu mordorik eta.